

Agur guztioi

Euskotar lagun zintzo bateri biotzez.

Abertzaletasunean alkarrekin ondo emanarren, euskeraren alorrean naiz biok gure Ame euskera maite izan, ez degu bat egiten. Ori da euskotarrak daukagun aketxa, orrexegaitik gabiltza euskotarrak ain sakabanaturik, lau biztanle, amar eretxi desberdin. Zuk diozu euskera batua ona dela eta bera erabilli bear degula. Nik berriz, euskera batua bearko degula, bañan ez orain derrigorrian erantzi nai digutena, lenago gastelera sartu ziguten eran.

Zuk esaten dezu "euskera bat euskaldun guztientzat bear degula", gerora ori litzake egokiena, bañan ortarako denok norberen bertako euskalkia indartzuz bearluke, euskalki oiek, Ama baten semeak dira guztiak. Ama ugaria eta aberatsa, euskera emankorra da eta benetan mal te badegu, zugaitza oien adarrak ez dauzkagu aizkoraz ebagi eta suta ra botatzerik danak zaindu geinske eta era berean gaurko aurrerapenarekin irrati, irratikuskin eta era guzitako laguntzakin alkarren artu emanekin berez berez etorriko litzake batasuna zugaitz indartsu ortatik adar egokienak berezituaz enborra auldu gabe.

Lan orretan zebiltzan 1968 aurretik izkuntzalari trebeak oien artean R.M. Azkue, M. Lekuona, N. Ormaetxea eta aitatu ezin besteko "jakitunak" diot nik, bada orain ere Euskaltzaindiko kideak eta batuzale askok aiek goralduez omenaldiak eskeintzen diete, bañan "gauza arra-roa" batusaleak dioten bezela, arrigarria benetan eskeintza oiek ez dituzte azaltzen omendutako jakitun aiek erabiltzen zuten euskalkian ez, arraioa, baizik batuaz azaltzen dute omendia, orduan zarrak eta txarrak ziranak orain gorengo mallara igotzeko kiñada egin eta dana konponduta legoke?.

Lagun onetsi ori zuk diñostazu geldituta edo atzeratuta nagoela eta euskeraren alorrean beste gauza guztietan bezela aurrera egin bear degula, ori egi biribilla da eta aurreraegiteko asmatzen diran gauza guzietan bere izen edo ezaugarritzaz ezagutu bear ditugunak lortu bear dituzte izkuntza guztietan, era ortan saiatu zan Aranatar Sabin eta beraai esker gaurko egunean itz berri asko daude erantzita gure euskeran eta gain bat ondo sustraituta, naiz telefono-ari, telefona askenengo atizkia erantzita ondo arkitzen badezu.

Era orretan azaltzen dira oraingo euskera batuzaleen idatzietan ezin besteko itzak erri euskera jatorrean beti gure artean ibilli diranak gaur basterturik geratzen ari diranak. Telefono-ari, urrutitzkin izena eman zion, ez noski urruti-izkiña (esquina lejana) baizik urrutiz itzegiteko tresna.(aparato para hablar a larga distancia).

Baita ere esaten zidazun irribarrez, ea nola esango nuken solfeo euskeraz, eta adarra joaz esan, " ez aldezu esango-eguzki motz". Solfeo edo solfa ludi guzian darabilen izkuntza berdiña degu eta Sol-Fa oiek bost lerroen

tartean dijoasten bi doñu dira, ludi guzian ezagunak, bañan solfeo izkuntza guzietan beren esanaia dauke eta euskeraz "eres-irakurtze litzake". Beste itz batzuk ere irriparrez azaldu zizkidazun besteen artean nolaz esan lezake : "departamento territorial" Erkaldeko lurraldea izan leike nere usteetan edo munen arteko lurraldea. Zure usteetan nolaz esango zenduke: Departamentu territoriala?. Aurrera bide ortatik ez gera urruti joango, ez aurrera beintzat, bai goitik bera amildegira eta euskeraren eriotzara eta azken arnasa ez da urruti izango zuk iñundik nai ez dezuna ez tartik ere.

Baste zertxo bat ere esango dizut. 1968garren urtetik aurrera batuzaleak Euskaltzainditik M. Lekuona eta bere ingurukoak kendurik jabetu ziranean Ak gure basoko gastañeditan xixak bañan ugariago azaltzen ziran, orain berriz "legortiaz ote". Ak urritu dira bañan ez erabat eta ikasleak nun sartu ez dakitela dabilta, diptongo danean bear omen du, ez ote da ori tongo egitea?.

Artolazabal´tar Ilarik irakurrita. Urte asko Bizkaian Ilari´k idatzitakoa